



BATZAR NAGUSIAK  
JUNTAS GENERALES  
**BIZKAI A**

PRENTSA OHARRA

## **Bizkaiko konposta merkaturatzeko eskaerea eta merkadua badagozala azaldu dabe adituek Batzar Nagusietan, kalidandezkoa bada**

Bilbon, 2014ko martxoaren 12an.

Iosu Madariaga Ingurumeneko Foru diputatua Batzar Nagusien aurrean agertu da gaur, Cisma aholkularitza etxeko aditu bik lagunduta, 2014ko urriaren 20an Osoko Batzarrean eta 2014ko Azaroaren 13an Batzordean onartu ziran Batzarretako ekimen bi betetako. Bilera bi horreetan, Bizkaiko uri-hondakinen zati organikoaren birziklatzea hobetzeko hartu beharreko neurrien ganeko azterlana batzarretako taldeen aurrean aurkezteko agindua emon zan. Mikel Garayk, txostena egiteko agindua euki dauen enpresaren bozeroaleak, esan dauenez, Bizkaiko konposta merkaturatzeko eta eskaintzaren ratioak hobetzeko behar besteko eskaerea dago, konpost horren kalidatea segurtatzen bada.

Cismako adituak azpimarratu dauenez, 2020. urtean zaborren tratamendurako araudia bete ahal izateko, Bizkaiak uri-hondakinen tratamendua handitu beharko dau, eta datozen urteetan bosgarren edukiontzia Bizkaiko udalerrri guztietara zabaldu beharko da, ekoizle handiak inbolukrau beharko dira –merkaduak eta merkataritza gun handiak– eta Administraziotik pizgarrien bitartez lortu beharko da herritarrek eta udalek “interesgarriago” ikustea materia organikoaren aukeraketea eta bilketea. Produktu guztiari urteerea emoteko alkarlan publiko-pribadua beharrezkoa izango dala esan dau, Europako herrialde aurreratuenetan egiten dan moduan.

Holan, Cismako bozeroaleak esan dau beharrezkoa dala lortzen dan produktuaren kalidatea segurtatzea, erreferentziazko kalidade arau baten bitartez, eta azpimarratu dau merkaturatzea bermatu ahal izateko beharrezkoa izango dala horren prezioa tona bakotzeko 50 eurotik beherakoa izatea, hori dalako Bizkaiak inportetan dauen turbaren prezioa.

Garayk adierazo dau konpostaje arloan erreferente diran beste herrialde batzuetan, konpost proportzino altuak erabilten urte asko daroazan Alemanian edo Austrian, adibidez, azkeneko prezioa, hondakin organikoak batzeko kobretan diran tasen arabera egokitzen dala, eta ez horrenbeste lortutako produktuaren salmentagaz irabazten danaren arabera.

Une honetan, Bizkaiak 4.000 konpost tona baino gitxiago sortzen ditu Artigasen, planta horrek 15.000 tona sortzeko ahalmena daukan arren. Sektoreak konpost horren kalidateari buruz daukan eretxiari jagokonez, esan dau adituak harrituta geratu dirala Bizkaiko konpostaren kalidatea ikusita, eta, bere esanetan, horrek “aurreikuspen interesgarriak” zabaltzen ditu konposta erabilteko, Bilboko edo Barakaldoko Udalek lorategietako beharretan egiten daben moduan, eta etorkizunean Penintsulako erdialdeko eta hegoaldeko lekuetan merkaturatu ahal izateko, lurraren ezaugarriak kontuan izanda. Esan dauenez, “gure lurrek behar besteko materia organikoa daukie”.



BATZAR NAGUSIAK  
JUNTAS GENERALES  
**BIZKAIA**

Batzarretako taldeak bat etorri dira Ingurumeneko Foru departamentuak eskatutako txostena “interesgarria” dala esatean. Horrek esan gura dau “potentzialtasunak” dagozala lurraldean konpost gehiago sortzeko eta produktuari urtenbidea aurkitzeko.

Taldeen arteko eztabaidea produkzio ereduan zentratu da. PP-ren eretxiz, lehentasuna emon behar jako produkzioaren zentralizazioari, kalidade estandar altuak lortzeko. EH Bilduk eta PSE-EEk, euren aldetik, esan dabe kalidadea ez dagoala kontrajarrita Artigasetik kanpo konposta egiteko “planta txikiak” ezarteagaz, “garraioaren” baldintzea be kontuan hartu beharko litzatekelako, horrek kostuan eta ingurumenean eragiten dauen kaltean daukan eraginarengaitik. Ingurumeneko diputatuak ez ditu atek itxi aukera horren aurrean. “Eskualde batzuetan planta txikiak bultzatzeko prest gagoz”, esan dau.

Aholkularitzari eta batzarretako taldeetako bozeroaleei entzun ostean, Madariagak esan dauenez “oraindino ibilpide luzea dago egiteko” konpostajearen arloan, erreferentzia moduan Alemania edo Austria moduko herrialdeak hartzen badoguz. Baina Bizkaia egin dauena etorkizunari begira “positiboa” dala azpimarratu dau. Datozan urteei begiratuta, Udalez eta norbanakoakaz “alkarren artean egin beharreko lanak” daukan garrantzia azpimarratu dau, zaborren materia organikoaren tratamenduan aurrera egin ahal izateko.

Diputatuak azpimarratu dauenez, 2015. urtean Foru Aldundiak %24 handitu dau konpostajearen arloan daukan aurrekontua, eta horretara bideratutako kopurua "1.090.000 eurora" arte handitu dau. Kopuru horretatik "600.000 euro" Bizkaiko udalerrietan jarri behar dan 5. edukiontzia erostera bideratuko dira, eta ganerakoa sentsibilizazio kanpainetara.

Bilketeari jagokonez, Madariagak argi itxi gura izan dau bere sailak ez dauela batzeko modua mugatzen, hori Udalen eskumena dalako. “Udalen autonomia errespetetan dot”. “Ez dot inolako oztoporik jarriko” beste bilketa sistema batzuk martxan jarri daitezkan, esan dau, Asier Vega EH Bilduko batzordekideak aitatu dituan Larrabetzu, Berriz edo Mallabia moduko udalerriak gogoratu.

## ZEBRA MUSKUILUA ETA ARRAIN HIRUARANTZA

Batzordeak aho batez onartu dau PP taldeak aurkeztutako arauz besteko proposamen bat, Foru Aldundiak, aurton, arrain hiruarantzak Bizkaian dauen egoerearen eta hedadurearen ganeko azterlana egin daian. Talde horrek adierazo dauenez, Gobela edo Castaños moduko erreketan egindako lanek eragina izan dabe arrain mueta horrek gure lurraldean daukan presentzian.

Edorta Rodrigo EAJ-PNV-ko batzordekideak gogoratu dauenez, badago “arrain hiruarantzaren kudeaketarako” plan bat, eta bertan, espezie horren bilakaerea aztertzeko urtero azterketak egitea jasoten da daborduko. Aurton, txostenek, “Butroe eta Oka erreken harroetan” egin beharreko azterketak be jasoko ditue.

PP taldeak salatu dauen moduan Lekubasoko urtegi (Galdakao) zebra muskuilua agertu izanari jagokonez, Ingurumeneko diputatuak baieztu dauenez, espezie horren presentzia hauteman zan 2014ko irailaren 18an egindako azterketan, bai urtegi eta baita errekan be. Muskuilu horren jarraipenerako batzordea alkartu ostean URAk martxan jarri dituan neurriak gogoratu ditu, bertan nabegetea galarazotea, eta inguru horretan, muskuiluaren presentziaren barri emoten daben kartelak jartea. Diputatuak adierazo dauenez, eginbehar horreen



BATZAR NAGUSIAK  
JUNTAS GENERALES  
**BIZKAIA**

koordinazioa URak (Uraren Euskal Agentziak) egiten dau, eta erakunde horren webgunean informazio zabala dago.

#### URAREN KUDEAKETA PUBLIKOA

Beste alde batetik, batzordeak EH Bilduren arauz besteko proposamen bat onartu dau. Bertan Bizkaiko Batzar Nagusiek, “uraren ziklo osoaren kudeaketa publikoa, integratutakoa eta parte-hartzailea” abaletan dabe, eta “pribatizazioaren kontra” agertzen dira. Bigarren puntuan, agindua emoten jako Bizkaiko Foru Aldundiari, “kide dan edozein partzuergotan pribatizazioa bultzatzea helburu dauen edozein ekimen baztertu daian”.

Puntu hori izan da, hain zuzen be, kontrako boto bakarra, Bizkaiko Talde Popularrarena, eragin dauena. PP-ren eretxiz, puntu hori batzarretako talde batzuek –EAJ-PNV eta PSE-EE-gobernetan dabenean egiten dabenean kontra doa. EAJ-PNV-ko Zuriñe Argatxaren eretxiz, helburua “uraren kudeaketa publikoaren alde” egotea da. Isaac Fernández sozialistea alderdi jakin batzuk pribatizatzearen alde agertu da, herritarrei zerbitzu hobea emoteko balio badabe. “Ez da lankidetzaren publiko-pribadua baztertu behar”, esan dau.

#### ZABORRA ARTIGAS INGURUETAN

EH Bilduko batzarretako taldeak Madariaga jauna prisaz batzorderatzea eskatuta eukan, azaldu daian urtarilaren bukaeran zergaitik pilau zan zaborra Artigaseko mendian eta TMB planta ixteko “aukareari” buruzko azalpenak emon daizan. Hori guztia, komunikabide batean argitaratutako informazioan oinarrituta.

Madariagak “goitik behera” guzurtau dau komunikabideetan agertutako informazioa. TMB planteak “ez da inoiz itxi azkeneko hilebeteotan”, eta esan dauenez, hondakindegia inguratzen daben basoetako puntu jakin batean, eta ez “mendi guztietan” EH Bilduk esan dauen moduan, “plastikoak” egotearen errazoa “haize indartsuak” izan ziran. Inguru guztia “egun bitan” garbitu zan, Nerea Ahedo jeltzaleak esan dauenez, eta koalizio abertzaleak “gertaera txiki bategaitik” biztu eban “errazoirik bako gizarteko alarma” salatu dau. PP-ko Arturo Aldecoaren berbetan, gertaera horrek ez dauka “inolako garrantzirik”. PSE-EE taldeak, haizea egiten dauen egunetan hondakindegian prebentziozko neurriak hartzea eskatu dau.



BATZAR NAGUSIAK  
JUNTAS GENERALES  
BIZKAIA

NOTA DE PRENSA

## **Expertos sostienen que existe demanda y mercado para comercializar un compost vizcaíno, siempre que sea de calidad**

Bilbao, a 12 de marzo de 2014.

El diputado foral de Medio Ambiente, Iosu Madariaga, ha comparecido hoy en Juntas Generales acompañado de dos expertos de la consultora Cisma para dar cumplimiento de dos iniciativas parlamentarias aprobadas el 20 de octubre de 2014 en Pleno y el 13 de Noviembre de 2014 en Comisión, ambas relativas a presentar a los grupos junteros un estudio con las medidas a adoptar para mejorar el reciclaje de la fracción orgánica de los residuos urbanos en Bizkaia. El portavoz de la empresa encargada del informe, Mikel Garay, ha sostenido que existe demanda suficiente para comercializar el compost vizcaíno y mejorar los ratios de oferta siempre que se asegure la calidad del mismo.

El experto de Cisma ha recalcado que para cumplir en el año 2020 con la normativa europea en el tratamiento de las basuras, Bizkaia debe incrementar el tratamiento de los residuos orgánicos, de forma que se extienda en los próximos años a todos los municipios de Bizkaia la implantación del quinto contenedor, se involucre a los grandes productores –mercados y grandes superficies comerciales- y se incentive desde la Administración el que ciudadanos y ayuntamientos encuentren “mayor interés” en impulsar la selección y recogida de la materia orgánica. Se han referido también a la cooperación público-privada para dar salida a todo el producto, tal y como se hace en los países más avanzados de Europa.

En este sentido, el portavoz de Sisma ha señalado que es necesario asegurar la calidad del producto saliente con una norma de calidad de referencia y ha avisado que para garantizar su salida al mercado, el precio debe estar por debajo de los 50 euros por tonelada que es el coste de la turba que importa Bizkaia.

Garay ha advertido que en otros países referentes en materia de compostaje, como pudieran ser Alemania o Austria, en donde llevan años manejando proporciones elevadas de compost, el precio final se ajusta en función de las tasas que cobran para la recogida de los residuos orgánicos y no tanto por lo que ingresan con la venta del producto resultante.

Actualmente, Bizkaia produce menos de 4.000 toneladas de compost en Artigas cuando esta planta tiene capacidad para producir 15.000 toneladas. Sometido la calidad de este compost a la opinión del sector, Garay ha indicado que los expertos se han sorprendido por la calidad del producto vizcaíno, lo que abre, según él, “expectativas interesantes” para la utilización del compost como ya hacen los ayuntamientos de Bilbao o Barakaldo en sus trabajos de jardinería, y para su futura comercialización en zonas del centro y sur de la Península por las características del suelo, ya que “nuestros suelos tienen suficiente materia orgánica”, ha advertido.

Los grupos junteros han coincidido en señalar que el informe encargado por el departamento foral de Medio Ambiente, es “interesante” y demuestra que existen “potencialidades” para incrementar el compost en el Territorio y buscar una salida al producto.



BATZAR NAGUSIAK  
JUNTAS GENERALES  
**BIZKAIA**

La discusión de los grupos ha estado centrada en el modelo productivo. Para el PP se debe primar la centralización de la producción para conseguir estándares de calidad altos. Por contra, EH Bildu y PSE-EE sostienen que esta calidad no está reñida con la implantación de “pequeñas plantas” de elaboración de compost alejadas de Artigas, ya que habría que tener en cuenta la variable del “transporte” por coste y por el perjuicio que podría generar al medio ambiente, algo a lo que el diputado de Medio Ambiente no se ha cerrado. “Estamos dispuestos a impulsar plantas pequeñas en algunas comarcas”, ha dicho.

Tras escuchar a los portavoces de la consultora y de los grupos junteros, Madariaga se ha referido a que en materia de compostaje queda “mucho camino por recorrer” si tomamos como referencia países como Alemania o Austria, si bien ha señalado que lo que se ha hecho en Bizkaia es “positivo” de cara al futuro. De cara a los próximos años, ha destacado la importancia de la “labor mancomunada” con ayuntamientos y particulares para avanzar en el tratamiento de la materia orgánica de las basuras.

El diputado ha destacado que durante 2015, la Diputación ha aumentando un 24% su presupuesto en materia de compostaje hasta elevar la cantidad destinada hasta "1.090.000 euros", de los que "600.000" serán para la compra del 5º contenedor en los municipios vizcaínos y el resto para campañas de sensibilización.

En cuanto a la recogida, Madariaga ha querido dejar claro que su departamento no limita el tipo de recogida, ya que eso es una competencia municipal. “Respeto la autonomía municipal”. “No voy a poner ningún obstáculo” a que se pongan en marcha otros métodos de recogida en referencia a los municipios de Larrabetzu, Berriz o Mallabia, citados por el juntero de EH Bildu Asier Vega.

## MEJILLÓN CEBRA Y PEZ ESPINOSO

Asimismo, la comisión ha aprobado por unanimidad una proposición no de norma presentada por el PP para que la Diputación elabore durante este año un estudio sobre la situación y distribución actual del pez espinoso en Bizkaia. Según este grupo, las obras realizadas en ríos como el Gobelos o el Castaños han afectado a su presencia en el Territorio.

El apoderado del PNV Edorta Rodrigo ha recordado que existe un “plan de gestión del pez espinoso” en el que se recoge ya la realización de estudios anuales para ver la evolución de esta especie. Para este año, los informes incorporarán análisis "en las cuencas del Butrón y el Oca", ha revelado.

En cuanto a la aparición del mejillón cebra en el embalse de Lekubaso (Galdakao), denunciada por el PP, el diputado de Medio Ambiente ha confirmado que su presencia fue detectada en un análisis efectuado el 18 de septiembre de 2014, tanto en el pantano como en el río. Ha recordado las medidas puestas en marcha por URA tras reunirse la comisión de seguimiento de este molusco, de prohibir la navegación e instalar cartelería en la zona para advertir de su presencia. El diputado ha señalado que la coordinación de los trabajos lo realiza URA (la Agencia Vasca del Agua) y que en su página web se encuentra amplia información.



BATZAR NAGUSIAK  
JUNTAS GENERALES  
**BIZKAIA**

## GESTIÓN PÚBLICA DEL AGUA

Por otro lado, la comisión ha aprobado una proposición no de norma de EH Bildu en la que las Juntas Generales de Bizkaia avalan “una gestión pública, integrada y participativa del ciclo integral del agua” y se manifiestan “en contra de la privatización”. En un segundo punto, se insta a la Diputación Foral de Bizkaia a que “elimine” cualquier iniciativa cuyo objetivo sea impulsar la privatización en los Consorcios de agua en los que participe.

Precisamente, este punto ha motivado el único rechazo, el del grupo Popular Vizcaíno. El PP entiende que esta cuestión va en contra de lo que hacen algunos grupos junteros –PNV y PSE-EE- cuando gobiernan. Para Zuriñe Argatxa, del PNV, se trata sólo de estar “a favor de una gestión pública del agua”. El socialista Isaac Fernández se ha mostrado partidario de privatizar ciertos aspectos siempre que sirva para dar un mejor servicio a la ciudadanía. “No hay que desdeñar la colaboración pública-privada”, ha dicho.

## BASURA EN LOS ALREDEDORES DE ARTIGAS

Por su parte, el grupo juntero EH Bildu había pedido la presencia urgente de Madariaga para que explicara los motivos de la dispersión de residuos en el monte Artigas a finales de enero y sobre el “posible” cierre de la planta de TMB, haciéndose eco de la información publicada por un medio de comunicación.

Madariaga ha desmentido “rotundamente” la información periodística. La planta de TMB “no se ha cerrado en ningún momento durante los últimos meses” y ha señalado que la presencia de “plásticos” en un punto concreto de los bosques que rodean al vertedero, “en ningún caso de todos los montes” como señalaba EH Bildu, estuvo motivada por “fuertes vientos”. La zona fue limpiada en “dos días”, según la jeltzale Nerea Ahedo que ha denunciado la “alarma social injustificada” que impulsó la coalición abertzale por un episodio “nimio”, según ella, o “sin la mayor trascendencia” según Arturo Aldecoa (PP). El PSE-EE ha pedido que se tomen medidas preventivas en el vertedero los días ventosos.